

Itzalean argi



Kontakizunak

Egilea: Edgar Allan Poe
 Itzultzailea: Koro Navarro
 Argitaratze urtea: 2011
 Argitaletxea: Elkar
 Urrezko Biblioteka bilduma

ANDER IRIZAR

Dagoeneko hogei urte baino gehiago joan dira Literatura Unibertsala bilduma abian jarri zutenetik Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteak (EIZIE) eta Eusko Jaurlaritzak. Bitarte horretan, 150 literatur lan baino gehiago euskaratu dira. Autoreen eta obren hautaketan izango da argirik eta itzalik, baina, hala ere, ez da nolanhikoa liburu sorta horrekin euskal literaturari azken urteotan egin zaion ekarpena. Aipagai dugun bildumaren lehen aroa 100 obrak osatu zuten, eta ale haietako hogeirekin da orain gauzatze bidean Urrezko Biblioteka deitu zaiona.

Biblioteka urrezko hori zer liburuarekin osatu behar den ere eztabaida daiteke, baina, kontuan hartuta Poe Erromantizismoko figura aipagarrienetakoa dela, eta ez diola modan egoteari utzi, min pixka bat emango zukeen idazle hau kanpoan uzteak. Idazle estatubatuarrek literaturaren arlo asko jorratu bazituen ere, bere kontakizun laburrengatik da bereziki ezaguna. Beldurrezkoak batzuk, zientzia-fikzioaren aitzindari izan zirenak beste batzuk, dedukzioan oinarritutako detektibe-kontakizun erabat berritzaileak ere bai besteren batzuk: dozenaka batzuk idatzi zituen guztira. Liburu honetan, ordea, zortzi bakarrik bildu dira, eta bada hemen ere argiez gain, beraz, itzalik ere, asko samar baitira euskaratu gabe geldituak. Edozein modutan, hel diezaiegun argiei. Hala, esan dezagun hor direla, esate baterako, *Usher etxearen hondamena*, bere kontakizun onentsuenetakoa, baita *Maelström* kresal usainekoa ere, zientzia-fikzioaren lehenbiziko agerbideak dituen, *Putzua eta pendulua* ezaguna, *Amontillado upela*, lehenago ere euskarara ekarria –Jon Mirandek lehenbizi, eta Oskillasok hurrengo–, eta oso bestelako taxuko *Mari Rogêten misterioa*, non interesgarria baita, historia bera baino gehiago nire ustez, Poek egindako hausnarketa filosofiko-zientifikoa. Eta esan dezagun, halaber, irakurleak, liburuoko zortzi kontakizunotan zehar, aurkituko dituela, bai, Allan Poeren kontakizunetan ohikoak diren toki ilun eta itogarriak, egoera izu-eragileak, baita pertsonaien gogo-egoera bereziak ere, beren pertzepzio nahasiak eragindakoak askotan. Berak izandako esperientzietatik ateratakoak dira, ez da dudarik, bere narrazioetan ageri diren elementuetako asko, psikologikoak batik bat. Beste idazle askorekin bezala, Poerekin ere esan daiteke oso bizitza ona izan zuela literaturarako, baina ez, ordea, bizitzeko.

Esan dugunez, berrargitalpena da hau, Urrezko Bibliotekako gainerakoak bezala. Aipagarria da, ordea, liburuok ez direla besterik gabe ari berrargitaratzen. EIZIEk izendatutako batzorde batek aztertzen ditu testuak, eta, kontuan hartuta euskarazko testugintzan eta arau formaletan azken urteotan izandako aurrerabideak, aholku batzuk ematen ditu liburu bakoitzaren zuzenketarako. Koro Navarroren itzulpenak ere pasatu du

iragazki hori, eta 2000. urteko itzulpen honek, hala, biziberrituta ikusi du orain argia. Merezki luke fortuna izatea, Urrezko Bibliotekako gainerakoekin batera, bere bigarren mundualdi honetan.